

Euskadin, ama izateko batez besteko adina 32 urte da

Euskadiko emakume bakoitzak 1,2 seme-alaba ditu batez beste. Zifra hori biztanle kopuruari eusteko ordezkapen maila (2,1 emakume bakoitzeko) baino baxuagoa da



Jaiotza-tasak beherakada handia jasan zuen Euskadin 1990eko hamarkadan. Mende honen hasieran joera hori apur bat arinduz joan da, hein handi batean emakume etorkinen emankortasuna dela-eta. Ildo horretatik, esan beharra dago 2004an jaiotakoan %6,6 emakume etorkinen seme-alabak izan ziren; herritar etorkinak Euskadiko biztanleriaren %3,4 dira.

Hala ere, ugalkortasun indize sintetikoak adierazten duen bezala, ugaltzeko adinean (15 eta 49 urte bitartean) dagoen emakume bakoitzarengandik jaiotakoan kopuruaren batez bestekoa Euskadin 1,2 da. Kopuru hori ez da belaunaldiak ordezkatzeko adinako mailara iristen (2,1 seme-alaba emakume bakoitzeko).

EAE	1991	1996	2001	2004
Ugalkortasun indize sintetikoa	1,0	1,0	1,1	1,2
Ugalkortasun tasak:				
15-19	4,0	2,6	3,3	4,7
20-24	20,2	10,4	10,0	13,7
25-29	69,3	51,7	43,1	44,5

Iturria: INE

Ama izateko adina atzeratu egin da: 1991n adin hori batez beste 30,1 urte zen; 2004an, ordea, 32,4 urte izan da. Horrela, bada, emakume gazteen artean ugalkortasun tasek behera egin dute arian-arian. 2001etik aurrera gorakada arin bat antzeman da, baina ez dira aurreko aldietako balioetara heltzen.

Hiru **Lurralde Historikoen** analisiak, Euskadi osoaren egoerarenak bezala, jaiotza tasak gora egin duela adierazten du. Horri dagokionez, Gipuzkoa nabarmentzen da: bere tasa Euskadikoa baino altuagoa da. Tasak izan duen hazkundeaz ari bagara, Gipuzkoakoa hiru lurraldeetako altuena izan dela baieztatu daiteke.

Ugalkortasun indize sintetikoko baliorik altuenak Gipuzkoari dagozkio eta, izatez, Euskadiko balio osoen gaineratik daude.

Hiru lurraldeetan emakume gazteen ugalkortasun tasak igo egin dira hiru adin-taldeetan. 20 eta 24 urte bitarteko eta 25 eta 29 urte bitarteko emakumeengan ugalkortasun tasa ez da 1990eko hamarkadakora iristen. Hortaz, gorakada handia izan bada ere, ugalkortasun tasak baxuak dira. 15 eta 19 urte bitarteko


emakumeengan, aldiz, 1990eko hamarkadaren hasierakoak baino tasa altuagoak erregistratu dira.

Araba	1991	1996	2001	2004
Ugalkortasun indize sintetikoa	1,0	1,0	1,0	1,2
Ugalkortasun tasak:				
15-19	4,0	2,6	4,3	5,1
20-24	24,6	10,9	10,7	15,6
25-29	78,1	56,5	42,7	46,0
Bizkaia				
Ugalkortasun indize sintetikoa	0,9	0,9	1,0	1,1
Ugalkortasun tasak:				
15-19	4,7	3,0	3,6	5,2
20-24	20,1	10,5	10,7	13,9
25-29	64,0	46,5	37,6	39,4
Gipuzkoa				
Ugalkortasun indize sintetikoa	1,0	1,1	1,2	1,3
Ugalkortasun tasak:				
15-19	2,8	1,9	2,5	3,5
20-24	18,6	10,2	8,5	12,4
25-29	74,9	58,5	52,3	52,3

Iturria: INE

Nabarmendu daitekeen beste alderdi bat da emakume gazte ezkongabeek izandako umeen jaiotzen proportzioaren hazkuntza. 1991n Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko emakume ezkongabeek erditutako umeak guztizkoaren % 9,9 besterik ez ziren. 2004an, aldiz, proportzio hori 25 puntu igo dela egiazta daiteke; proportzio hori, hortaz, 2004an % 36,5ean kokatu da.

Igoera hori hiru lurraldeetan suma daiteke. Gorakadarik nabarmenena Bizkaian gertatu da (% 31,5 gehiago); atzetik Araba (% 25,5 gehiago) eta Gipuzkoa (% 20,3 gehiago) datoz.



Iturria: Eustat

Amatasunera heltzeko batez besteko adina Bizkaian eta Gipuzkoan 32,4 urte da eta, Araban, 32,2.

Erlazionaturiko datu taulak:

1. taula (pdf, 19 kb)
2. taula (pdf, 19 kb)
3. taula (pdf, 23 kb)
4. taula (pdf, 19 kb)
5. taula (pdf, 19 kb)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)